



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021ko martxoak 30

Vitoria-Gasteiz, 30 de marzo de 2021

Segurtasuna

SEGURTASUN SAILAREN 2021 ERAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DA

- Dokumentuan elkarreek, erakundeek eta organismoek Segurtasun Sailetik jasoko dituzten dirulaguntza guztiak jaso dira
- Horien artean, nabarmentzekoak dira jokoarekiko adikzioei aurrea hartzeko eta herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman parte hartzea sustatzeko programak

Gobernu Kontseiluak Segurtasun Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Testua webgunean argitaratuko da jendeak kontsultatu ahal izateko, eta argi eta garbi azalduko dira aurten elkarreek, erakundeek eta organismoek jasoko dituzten dirulaguntza guztiak. Planak sei ardatz estrategiko ditu:

1. **Alderdi politikoaren finantzaketa publikoa**, Eusko Legebiltzarrerako egindako azken hauteskundeetan herritarrek emandako ordezkartzaren arabera:
 - ✓ 4,5 milioi euro EAJ-PNV, EH-BILDU, ELKARREKIN-PODEMOS-IU, PSE-PSOE, PP+Cs eta VOX alderdientzat.
2. **Herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte hartzea sustatzea**. Eusko Jaurlaritzaren helburua da euskal sare horretan sartzea larrialdi-egoeretan pertsonen laguntza ematen edo ondasunak hornitzen lankidetzan aritzen diren erakunde guztiak:
 - ✓ Gurutze Gorria, 453.600€
 - ✓ DYA, 137.000€
 - ✓ Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, 36.000€
 - ✓ Euskal Espeleologoaren Elkargoa, 15.000€
 - ✓ Mendiko Euskal Federazioa, 25.000€
3. **Informazio ozeano-meteorologikoa lortzeko ikerketa**, itsasertzeko itsas ingurunekeo plataformen bidez. Laguntza-lerro honi esker, Eusko Jaurlaritzak portuetan kokatuta dauden plataformetako, ur sakonetako buietako eta kostaldeko radar-sareko eta bideometria-sistemako informazioa biltzen du. Horren bidez, itsasoaren eta itsasertzaren portaerari buruzko aurreikuspenak, arriskuei buruzko iragarpenak, eta abar egin ditzake.
 - ✓ AZTI Fundazioa, 195.000€
4. **Meteorologia-zaleekin lankidetzak**, Euskalmeti arazo meteorologikoen eta larrialdi-egoeren berri eman diezaioten. Dirulaguntza honi esker, Eusko Jaurlaritzak sentsoreetatik edo meteorologia-estazioetatik

antzemateko zailak diren egoerei buruzko kalitatezko informazio kontrastatua izan dezake: denbora errealeko bideoak, atmosferaren berezitasunak, etab.

✓ EuskalEguraldia, 3.000€

5. **Mugikortasun segurua sustatzea.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da ikasleak trafiko-istripuen prebentzioaren arloan sentsibilizatzeko kanpainak egitea ikastetxeetan bertan.

✓ AESLEME, Mugikortasun segururako hezkuntzaren arloko elkarteak, 30.000€

6. **Joko-adikzioen ondorio diren arriskuen prebentzioa.** Eusko Jaurlaritzak ludopatiari aurrea hartzeko, jokoarekin lotutako arriskuak murrizteko eta prebentzio-proiektuak lantzeko lanean ari diren erakundeen laguntza du.

✓ Ludopatiari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak garatzeko irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatuak, 200.000€

✓ UPV/EHU, Jokoaren Euskal Behatokiaren ikerketa-programa finantzatzeko, 100.000€

7. **Ertzaintzako langileek polizien eta suhiltzaileen jokoetan parte har dezaten sustatzea eta bultzatzea.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da kirol-esperientziak partekatzea, poliziako eta larrialdietako kidegoen arteko laguntasuna sustatzea eta, batez ere, forma fisiko onari eustea Ertzaintza barruan.

✓ Kirol-lehiaketetan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak, 20.000€

Segurtasuna

ALDERDI POLITIKOEN FUNTZIONAMENDU ARRUNTERAKO 2021ERAKO DIRULAGUNTZA ONARTU DA

- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan 4.536.000 euroko kontu-saila izendatu da 2021erako

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politikoei emango zaien dirulaguntzaren banaketa. Dirulaguntzaren helburua 2021eko funtzionamendu arrunterako gastuei erantzutea da.

Banaketa kalkulatu da Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetako emaitzak, hau da, botoak eta eserlekuak, Euskadiko Hauteskunde Batzordeak EHAAn argitaratuak, kontuan hartuta.

ALDERDI POLITIKOA	BOTOAK GUZTIRA EAE (*)	ESERLEKUAK
EAJ-PNV	349.960	31
EH Bildu	249.580	21
PSE-EE (PSOE)	122.248	10
Elkarrekin Podemos-IU	72.113	6
PP+Cs	60.650	6
VOX	17.569	1
GUZTIRA	872.120	75

(*) Dirulaguntza-eskubidea ematen duten botoak guztira Euskal Autonomia Erkidegoan.

ALDERDI POLITIKOA	DIRULAGUNTZA GUZTIRA
EAJ-PNV	1.838.415,76 €
EH Bildu	1.288.756,87 €
PSE-EE (PSOE)	625.484,27 €
Elkarrekin Podemos-IU	371.005,54 €
PP+Cs	331.258,58 €
VOX	81.078,98 €
GUZTIRA	4.536.000,00 €

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK 1.400 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU EUSKADIKO ERALDAKETA DIGITALA SUSTATZEKO MODU SINERGIKOAN ETA PROAKTIBOAN

- **Gobernu Kontseiluak “Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia” onartu du, eta administrazioa ezarri du digitalizazioaren motortzat**
- **Tapiak azpimarratu du Euskal Autonomia Erkidegoa ondo kokatua dagoela erronka horri aurre egiteko, politika publikoen inguruan hogeitaz urtetan metatutako esperientzia egiaztatuari esker**
- **Aurreikusitako 18 ekintza-ildoen artean, hauek nabarmenduko dira: Adimen Artifizialeko Zentroaren sorrera, 5-G enpresa-eremuetan zabaltzea, Data Centers sortzea, eta talentua eta gaitasun profesionalak indartzea**

Eusko Jaurlaritzak gaur egindako Gobernu Kontseiluan “Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia” onartu du eta Legebiltzarrera igorri du. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak gidatutako plan honek, bertan nahastuta dauden eragile guztien laguntza sinergiko, proaktibo eta koordinatuarekin, eraldaketa digitalaren eredu berri batek ezartzen duen erronka babestuko du.

Arantxa Tapia sailburuak gogoratu du informazioaren gizartea bultzatzeko estrategiak 20 urteko ibilbidea duela Euskal Autonomia Erkidegoan, eta eboluzionatzen joan dela digitalizazio-aukerak txertatzeko, berrikuntza-palanka izateko duen gaitasuna aprobetxatzeko eta 4.0 industrializazio adimendun baterako **ekoizpen-sektoreak modu disruptiboan eraldatzeko**.

2021-2025 aldirako, Eusko Jaurlaritzak 1.400 milioi euroko gutxieneko aurrekontu bateratua bideratuko du. Zenbateko horren barne hartzen dira, batetik, prozesu eta zerbitzu propioak digitalizatzea, eta ekipamendu informatikoak erostea eta mantentzea, eta, bestetik, euren eskumenen esparruan dauden kanpoko eragileen eraldaketa digitala bultzatzea.

Tapiak azaldu duenez, "besteak baino lehenago egokituz", trantsizio teknologikoa eta digitala, energia- eta ingurumen-trantsizioa, eta trantsizio soziala eta sanitarioa dira Euskal Autonomia Erkidegoak arrakastaz gainditu nahi dituen hiru trantsizio globalak. “Koronabirusaren krisiak haiek zein garrantzitsuak diren argi eta garbi erakutsi du, bizkortu egin ditu eta datozen bost urteetarako munduko agendako oinarritzeko elementu bihurtu ditu”.

Horregatik, hori sustatzeko politika publikotan hogeituro urteko esperientzia egiaztatua metatu ondoren, informazioaren gizartearen aurrerapenaren adierazleek Euskal Autonomia Erkidegoa Europako herrialdeen artean buruan jartzen dute, eta estrategia horiek egokiak izan direla eta “Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiaren” abiapuntua sendoa dela erakusten dute.

Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia

Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiaren bidez —EEDE2025 izen laburtuan—, eraldaketa digitalaren eredu berri bat definitzen da; horrek Euskal Administrazio Publikoaren eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko harremana ulertzeko eta gauzatzeko beste modu bat dakar, erronka globalei elkarrekin aurre egin ahal izateko.

EEDE2025 hiru multzotan egituratzen da, eta, horri esker, Eusko Jaurlaritzak strategiaren indarraldian fokua eta lehentasunak zein elementutan jarriko dituen zehaztu ahal izango da. Multzo horiek hauek dira: palanka teknologikoak (6), laguntza-bideratzaileak (10) eta aplikazio-esparruak (14). Hiru multzo horiek ez dute modu bakanduan jarduten, sistema gisa baizik, eta Euskal Autonomia Erkidegoarentzako balioa sortzearen ikuspegitik hartu behar dira kontuan. Hortik aurrera, hiru trantsizioetan planteatzen diren erronketan epe laburrera, ertainera eta luzera izan behar duten eginkizun disruptiboa kontuan hartuta hautatu dira palanka teknologikoak. Bideratzaileak teknologia digitalen hedapena errazten eta bizkortzen duten bitarteko, kanal edo gaitasun gisa osatzen dira.

EEDE2025en multzo horiek kontuan hartuz, strategiaren helburu orokorra honako hau da: “Palanka teknologiko hasiberrien ezarpena bizkortzea, garapena indartzea eta bideratzaileen ahalmen frogatua aprobetxatzea, funtsezko aplikazio-eremuetan azkar barne har daitezkeen aktibatzea eta sustatzea, horrela, Euskal Autonomia Erkidegoak 2025erako aurre egin behar dion trantsizio teknologikoari eta digitalari, energia- eta ingurumen-trantsizioari, eta trantsizio sozialari eta sanitarioari lagunduz”.

Palanka teknologikoak eta laguntza-bideratzaileak aplikazio-esparruekin konektatzeko helburuarekin, 4 sektore eta hauei dagozkien 18 ekintza-ildo definitu dira. Sektoreak honako hauek dira: ekimen bereziak; ekosistema integratua; gaitasun digitalak; azelerazioa, esperimentazioa eta erabilera. Sektore horietako bakoitzak 18 ekintza-ildo ditu, eta hauen mende daude ekimen eta proiektu zehatzak. Ekintza-ildoen artean nabarmentzekoak dira azken urteotan jada lantzen ari ziren ekimenak, hala nola Basque Cybersecurity Centre (BCSC), Banda Zabal Ultrasterraren Behatokia edo Metaposta zerbitzua. Ekimen berriren bat abian jartzea ere aurreikusten da, hala nola Basque Artificial Intelligence Center (BAIC), enpresentzako elkarrengarritasuneko plataforma bat abian jartzea, Data Centers delakoak sortzen laguntzea edo enpresa-mailan 5G erabiltzeko erraztasunak ematea. Hori guztia, beti, desparekotasun digitala murriztea bilatuz.

Era berean, EEDE2025en esparruan, Jaurlaritzako gainerako sailekin lankidetzan jardungo da, sinergiak sortzeko ezagutzak trukatzuz, beharrezkoa den

guztietan. Lankidetzan hori lagungarria izango da Euskal Administrazio Publikoa gehiago digitalizatzeko; eta horrek, aldi berean, herritarren zerbitzuak eta bizi-kalitatea hobetzeko balioko du.

Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiak bost urteko epea du bere helburuak betetzen direla ziurtatzeko, identifikatutako trakzio-ekimenak garatzeko eta, hala badagokio, betearazpenean aurrera egitearen arabera edo lege-, ekonomia-, gizarte- edo teknologia-aldaketei erantzuteko egokitzat jotzen diren beste ekimen batzuk barne hartzeko.

Eusko Jaurlaritzak oso gogoan ditu Europako Batzordetik datozen gidalerroak, eta bere egiten ditu, gure herrialdearen helburu eta lehentasun berezietara egokituta. Hala, iragan martxoaren 9an, Europako Batzordeak «2030erako Iparrorratz Digitala: Hamarkada Digitalaren Bide Europarra» izenburua zeraman komunikazioa aurkeztu zuen. Komunikazio hori esparru orokorra osatzen duen Europaren etorkizun digitala taxutzeko estrategian oinarritzen da. Aitzitik, bertan ere kontuan hartzen dira koronabirusaren pandemiak eragindako aldaketa izugarriak; izan ere, pandemiak tresna digitalen erabilera izugarri bizkortu du eta beren aukerak erakutsi ditu, baina, era berean, agerian utzi du gure gizarteak desparekotasun digital berrien aurrean duen ahultasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoa prest dago trantsizio horrek dakarren erronkarik handiena bere gain hartzeko, eraldaketa digitaleko eredu berri bati helduz.

18 ekintza-ildo herrialdearen eraldaketa digitalerako

➤ *Ekimen Bereziak:*

1. BCSCa sendotzea eta enpresara bideratzea
2. Banda Zabal Ultralasterraren Behatokia sendotzea
3. **BAIC** zentroa abian jartzea
4. Datuaren Europako Estrategian laguntza
5. Metaposta bultzatzea

➤ *Ekosistema integratua:*

6. Enpresentzako elkarreragingarritasun-plataforma bat abian jartzea
7. Ekosistema agerian jarri eta sendotzea
8. Nazioarteko sareetan eta eragileekin kokatzea
9. **Data center**-en sorkuntza bultzatzea

➤ *Gaitasun digitalak:*

10. Desberdintasun digitala murriztea
11. Lanbide-gaitasun digitalak bultzatzea
12. **EIKT talentu orokorraren eta espezializatuaren sorkuntza** bultzatzea
13. Sentsibilizatzea eta zabaltzea

➤ *Bizkortzea, Esperimentazioa eta Erabilera:*

14. Teknologia digitalak ezartzea
15. **ETEen digitalizazioa** bizkortzea
16. Enpresetan Banda Zabal Ultralasterraren eta **5G**aren erabilera erraztea
17. Digitalizazioaren arloko ekintzailtza eta barne-ekintzailtza sustatzea
18. Enpresek *cloud* zerbitzuen eskaintza eta eskaria sustatzea

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAREN (NPB) ZUZENEKO LAGUNTZAK IRAGARRI DITU 2021ERAKO, 45 MILIOI EUROREN BALIOAREKIN

- **Era berean, laborantza estentsiboak teknika jasangarrien bidez dibertsifikatzeko laguntzen deialdia onartu da, 2015-2020 LGParen esparruan**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindu baten bidez, Eusko Jaurlaritzak Nekazaritza Politika Erkidearen (NPB) zuzeneko laguntzen deialdia egin du 2021eko ekitaldirako. Europako Erkidegokoaren funtsekin finantzatuta, 44,83 milioi euroko zuzkidura izango dute ekitaldi honetarako, eta honela banatuko dira: oinarriko ordainketa (21,95 milioi), klimarako eta ingurumenerako jardunbide onuragarriak aplikatzeko ordainketa (11,07), ordainketa elkartuak (9,75), nekazari txikientzako erregimen sinplifikatua (1,97) eta jarduerari ekiten dioten nekazari gazteentzako ordainketa osagarria (0,79).

Eskabideak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariari bidali behar zaizkio, eta dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan aurkeztu behar dira, edo, bestela, legeak aurreikusitako edozein lekutan edo moduan. **Epea datorren apirilaren 30ean amaituko da, baina ezarritako epea amaitu eta hurrengo 25 egun naturaletan aurkeztutako eskaintzak ere onartuko dira.** Kasu horretan, zenbatekoak ehuneko bat murriztuko dira data hori gainditzen den egun baliiodun bakoitzeko.

Ordainketa horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen bidez egiten dira, funtsak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan jasotzen baitira. Erkidegoko araudiak eskatzen dituen baldintzak bete ondoren, Erakunde Ordaintzaileak laguntzak eskatzen dituzten onuradunei ordainduko die. Laguntza horien kudeaketa Foru Aldundiei dagokie, eta haiekin izenpetutako hitzarmenen arabera, Foru Aldundiak dira, bulego kitatzaile ofizialak diren heinean, onuradunari laguntzaren zenbatekoa ordainduko diotenak.

Nekazarien errenta babesteko laguntza horien bidez, **Eusko Jaurlaritzak lehen sektorerako ezarri dituen helburuetan aurrera egin da.** Helburu horien artean daude, esaterako, belaunaldi erreleboa, nekazaritza sektorearen modernizazioa, berrikuntzaren eta lehiakortasunaren sustapena elikagaien katean, nekazaritza esparruan formazioa, nekazaritzako elikagaien industriaren babesa eta kalitateko bereizgarrien balio erantsiaren sustapena. Helburuak dira, baita ere, ingurumena eta paisaia naturalaren babesa, oinarrizko zerbitzuak eskaintzea nekazal zonaldeetan, eta lanpostua sortu eta dibertsifikatzea landa eta itsasertzeko ingurunean.

Helburu horiek planteatzeko, Eusko Jaurlaritzak foro aldundiekin batera lan egin du, European kontuan har zitezten autonomia erkidegoarentzat interesgarrienak izan zitezkeen alderdiak, haien ezaugarri eta lehentasun bereziak kontuan hartuta. Modu horretan, **NPBean profesionaltasuna, erantzunkidetasuna eta lankidetzaren balioestea lortu da, ekologikoa eta kalitateko elikagaiak sustatuta eta gazteak instalatzearen eta landa ingurunean enplegua eta ongizatea sortzearen alde apustua eginda.**

Itxitako azken urteetan egindako ordainketen arabera, laguntza horien batez besteko zenbatekoa 44 milioi euro ingurukoa dela egiazta daiteke (43,52 euro 2017an, 43,54 euro 2018an eta 43,03 euro 2019an eta 42,99 euro 2020an).

Azpimarratu behar da, 2020an, sektoreak egindako eskarien eta Covid 19aren ziurgabetasunei lotutako kanpaina baten berezitasunaren aurrean, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuela, bere Erakunde Ordaintzailearen bidez, ekitaldi horri dagozkion Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) zuzeneko laguntzei dagozkien ordainketen %70eko aurrerakina egitea.

Laborantza estentsiboen dibertsifikaziorako laguntzak

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, bilera berean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindua onartu du. Agindu horren bidez, EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan onartu eta jasotakoarekin bat etorritik, nekazaritza ekoizpen jasangarriko tekniken bidezko laborantza estentsiboen dibertsifikaziorako nekazaritza ingurumeneko laguntzen deialdia egiten da 2021eko ekitaldirako, **1,25 milioi euroko zuzkidurarekin. Hektarea bakoitzeko gehieneko laguntza 600 eurokoa izango da.**

Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren estrategiaren barruan sartzen dira. Estrategia horren helburua da baliabide naturalen iraunkortasuna eta arrazoizko aprobetxamendua lortzea, bai eta ingurunea babestea ere, nekazarien errentak mantenduz eta hobetuz. Hala, produkzio jardueren dibertsifikazioa, laboreen txandakatzeak eta aldeko baldintza fitosanitarioen aprobetxamendua sustatu nahi ditu exekutibo autonomoak.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

420.000 EUROREN LAGUNTZAK NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURAREN SEKTOREETAKO PROFESIOALEN ETA ENPRESARIEN ELKARTEENTZAT

- **Zuzendaritza organoetan emakumeen presentzia orekatua izatea eta egiaztatzen duten sektoreko ezarpen maila izatea izango dira bete beharreko baldintzetako bat, Emakume Nekazariaren Estatutuak ezartzen duen moduan**
- **Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak lehen sektorerako prestatu duen 73 milioiren finantzaketa pakete zabalaren barruan sartzen dira**

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako profesionalen eta enpresarien elkarte eta federazioetarako 2021erako laguntzak arautuz Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak, bere azken Kontseilu bileran.

"Elkarteak" programako laguntzak dira, eta aurtengo ekitaldirako 420.000 euro inguru ditu programak, honela banatuta:

- Elikaduraren sektorea: 100.000 euro.
- Nekazaritzaren sektorea: 130.000 euro.
- Arrantzaren sektorea: 189.391 euro.

Lehen sektorerako Eusko Jaurlaritzak onartu eta Arantxa Tapia buru duen sailak sektore horretako ordezkari handi baten aurrean **aurkeztu berri duen finantzaketa pakete zabalaren barruan sartzen dira** laguntza horiek. Bereziki ekintzailatza bultzatu eta enpresak, azpiegiturak eta oinarriko zerbitzuak sortzeko, handitzeko eta modernizatzeko inbertsioetan laguntzeko, 73 milioi euro bideratu dira horretara guztira. Horietatik, 22 milioi euro inguru elikagaien industriara bideratu dira, 21 milioi euro baino gehiago sektorearen modernizaziora, eta 13 milioi euro baino gehiago landa eremuko ekonomia sustatzera.

Halaber, 9 milioi euro bioekonomiarekin, ekonomia zirkularrarekin eta ingurumenarekin lotura duten ekimenetara bideratuko dira, eta beste 8 milioi elikadura eta zuraren katera.0}

Laguntza horien helburu nagusia da enpresa ehunari laguntzea, bai eta landa eta itsasertz inguruneke eragileen ekosistemari eta elikaduraren eta zuraren balio kateari laguntzea ere, arreta berezia jarriz gazteengan eta belaunaldi erreleboan. **Orain deitutako laguntza lerroari dagokionez**, diruz lagundu daitezkeen gastuak ordezkarietakoak, funtzionamendukoak (bulegoko pertsonak, bulegoen alokairuak, aseguru primak, garbiketako eta komunitateko gastu orokorrak,

bulego materiala, argitalpen kuotak, kontserbazioa eta konponketak...), azterketak eta izaera esperimentaleko jarduerak egiteko gastuak eta azokak eta lehiaketak antolatzeak eragindakoak.

Eskaerak egiteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita. Eskabideak bide elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta, web helbide honetan eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera:

- Elikagaien sektorea: <https://www.euskadi.eus/servicios/1083403>
- Nekazaritzaren sektorea: <https://www.euskadi.eus/servicios/0113508>
- Arrantzaren sektorea: <https://www.euskadi.eus/servicios/1083303>

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 2021eko DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza Sailburuaren proposamenez, Sail honen 2021 urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Dokumentu honetan Hezkuntza Sailaren lau Sailburuordetzek eta 12 Zuzendaritzek kudeatzen dituzten dirulaguntza deialdi guztiak jasotzen dira, eta laguntza hauen aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta eraginak ere zehazten dira.

Izaera programatikoa duen Plan hau Hezkuntza Sailaren politika antolatzeko tresna da, dirulaguntzen bidez, gizartearen intereserako den jarduera bat sustatzea jomuga duten jardun-arloetan. Era honetan, tresna honen bidez Sailaren jardute-eremuan eraginkortasun maila areagotzea lortzeaz gain, gardentasuna sendotzea ere lortzen da.

Orotara, 121 dirulaguntza lerro ditu egun Hezkuntza Sailak, eta horien kopuru osoa 162.223.715 eurokoa da 2021 urterako. 121 deialdi horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, eskolaratzeko beka eta laguntzak, unibertsitate-bekak, Lanbide Heziketako zein unibertsitateko ikasleen mugikortasuna errazteko laguntzak, ikertzaileen mugikortasuna laguntzeko deialdiak, irakasleen prestakuntzara bideratuak, ikerketa sustatzeaz arduratzen direnak, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako ekipamendua eskuratzea helburu dutenak edo udal titulartasuneko eskoletan instalazioak egokitzeko asmoz deitzen diren dirulaguntzak.

Gobernu Kontseiluan onartu ondoren, Hezkuntza Sailaren 2021ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa Sail honen webgunean kontsultatu ahal izango da osorik.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ARLOKO PROIEKTUENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DA

Gobernu Kontseiluak onartu egin du bizikidetzarako eta giza eskubideetarako proiektuetara bideratutako laguntzen deialdia; aurten, 900.000 euro bideratuko dira, guztira.

Laguntza horien helburua gure gizartean bizikidetzaren, giza eskubideekiko errespetuaren, enpatiaren eta elkartasunaren kultura eta biktimak gizartera hurbiltzea da eta, horretarako, partekatutako espazioak sortzea.

Zehazki, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek martxan jartzen dituzten laguntzak deitu dira; horien barruan daude bizikidetzaren eta giza eskubideak helburu dituzten terrorismoaren biktimen elkarteak eta pertsona juridikoak. Laguntzak honako eremu hauetan programak eta jarduerak egitera bideratzen dira:

a) Bizikidetzaren eta giza eskubideak:

- Giza duintasunarekiko, giza eskubideekiko eta bizikidetzaren kontziliatuarekiko konpromisoa sustatzea helburu duten parte-hartzeko, zabalkunderako edo gizarte-hezkuntzako jarduketak.
- Gizartean edonolako indarkeriari, terrorismoari edo giza eskubideen urraketari lotutako kontzientzia kritikoa eta deslegitimatzailea sustatzeko ekimenak.
- Iraganean gertatutako edonolako indarkeria-motaren inguruan, hausnarketa kritikoko eta gizarteratzeko prozesuetan lagundu ahal izateko programak, Europako justizia leheneratzailearen joerarekin bat.
- Gizarte-partaidetzako esperientziak eta bizikidetzaren normalizatuaren erronken gaineko elkarrizketa desberdinen artean, aniztasuna eta gizarte-topaketa sustatzeko.

b) Biktimak eta gizarteak:

- Terrorismoaren biktimei laguntza emateko ekintzak.
- Politikagatiko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketaren biktima direnei laguntza emateko jarduketak.
- Biktimen eta gizartearen arteko lotura sustatzen duten programak, bai eta biktimek bizikidetzaren eraikuntzari aurrerapenen eta bilakaeren parte-hartzaile diren aldetik egiten dioten ekarpena sustatzen dutenak ere.

c) Aniztasuna eta elkartasuna:

- Aniztasunaren kudeaketa positiboaren eta arrazismoaren, xenofobiaren edo gorroto-delituen prebentzioaren balioak sustatzen dituzten proiektuak.

- Elkartasunaren eta gizarte-inplikazioaren balioak sustatzen dituzten esperientziak, desberdintasuneko, diskriminazioko, bidegabekeriako, bazterketako edo marjinazioko modu kritikoenen aurrean.
- Elkartasuneko, inplikazioko eta gizarte-mugikortasuneko ekintzak, indarkeriarako, gerrarako eta nazioarteko terrorismorako adierazpen berrien aurrean.

Seguridad

APROBADO EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD PARA 2021

- El documento recoge la totalidad de las subvenciones que las asociaciones, entidades u organismos recibirán por parte del Departamento de Seguridad
- Entre ellas, destacan los programas para prevenir las adicciones al juego o promocionar la participación de la sociedad en el Sistema Vasco de Atención de Emergencias

El Consejo de Gobierno ha aprobado el “Plan Estratégico de Subvenciones” del Departamento de Seguridad, un texto que se publicará en la página web para su consulta pública y con total transparencia de todas las subvenciones que recibirán, este año, las asociaciones, entidades u organismos. El plan tiene seis ejes estratégicos:

1. **Financiación pública de los partidos políticos** según la representación otorgada por la ciudadanía vasca en las últimas elecciones al Parlamento Vasco:
 - a. 4,5 millones de euros para EAJ-PNV, EH-BILDU, ELKARREKIN-PODEMOS-IU, PSE-PSOE, PP+Cs y VOX.
2. **Fomento y promoción de la participación voluntaria de la ciudadanía en el Sistema Vasco de Atención de Emergencias.** El objetivo del Gobierno Vasco es incluir en esta red vasca a todas las entidades colaboradoras que trabajan para atender a las personas o procurar bienes en situaciones de emergencias:
 - a. Cruz Roja, 453.600€
 - b. DYA, 137.000€
 - c. Grupo del Perro de Salvamento de Euskadi, 36.000€
 - d. Unión de Espeleología Vasca, 15.00€
 - e. Federación Vasca de Montaña, 25.000€
3. **Investigación destinada a obtener información oceánico-metereológica** a través de las plataformas ubicadas en el medio marino litoral. Gracias a esta línea de ayudas, el Gobierno Vasco capta la información de las plataformas situadas en los puertos, las boyas de aguas profundas, la red de radares costeros y los sistemas de videometría costera. Con ella, puede realizar previsiones de comportamiento del mar, costa, predecir riesgos, etc.
 - a. Fundación AZTI, 195.000€

4. **Cooperación con personal aficionado a la meteorología** que informe a Euskalmet de problemáticas y situaciones de emergencia. Esta subvención, permite al Gobierno Vasco contar con información de calidad y contrastada sobre situaciones que difícilmente serían detectables desde sensores o estaciones meteorológicas: vídeos en tiempo real, singularidades atmosféricas, etc.
 - a. EuskalEguraldia, 3.000€

5. **Fomento de la movilidad segura.** El Objetivo del Gobierno Vasco es poner en marcha campañas de sensibilización del alumnado en los propios centros educativos para prevenir los accidentes de tráfico:
